



Aurretiazko genero eraginaren txostena

Foru Dekretu proiektua, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko eta elkarren arteko laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duena

1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera

Informe de evaluación previa de impacto de género

Proyecto de Decreto Foral por el que se establece la obligación de identificar la residencia fiscal de las personas que ostenten la titularidad o el control de determinadas cuentas financieras y de suministro de información acerca de las mismas en el ámbito de la asistencia mutua

1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación



orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren alde aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren alde aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada.



2. Arau aldaketak

Finantza arloan informazioaren nazioarteko trukea tresna guztiz baliagarria da zerga administrazioek ziurtatu dezaten zergadunek beren zerga obligazioak behar bezala betetzen dituztela.

Horregatik, azken urteotan nazioarte mailan zenbait neurri eta akordio hartu dira informazio truke automatikoa zabaltzeko, bai zerga iruzurraren aurka jarduten duten administrazioen partetik, eta baita Europar Batasunaren eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundea (ELGA) esparruetan ere.

Horrela, Foru Dekretu proiektu honen bitartez barne ordenamenduan txertatzen dira:

2. Modificaciones normativas

El intercambio internacional de información en materia financiera es un valioso instrumento para verificar, por parte de las Administraciones tributarias, el correcto cumplimiento de las obligaciones fiscales de los contribuyentes.

Por ello, en los últimos años a escala internacional se han tomado diversas medidas y acuerdos para extender el intercambio automático de información, tanto por parte de las distintas Administraciones comprometidas en la lucha contra el fraude fiscal, como en el ámbito de la Unión Europea y de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos (OCDE)

Así, este Proyecto de Decreto Foral incorpora al ordenamiento interno:



- zerga administrazioari finantza-kontuei buruzko informazioa emateko jarraitu behar diren arauak
- finantza-erakundeek informazio hori lortzeko aplikatu beharreko prozedurak
- las normas de comunicación de información a la Administración tributaria sobre cuentas financieras
- los procedimientos de diligencia debida que deben aplicar las instituciones financieras en la obtención de dicha información

Horrekin ahalbidetu nahi da Zerga Administrazioak ere automatikoki trukatzea jasotzen duen informazioa finantza-kontuaren titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskalari dagokion herrialde edo jurisdikzioko administrazioarekin.

Todo ello, para que la Administración tributaria pueda intercambiar la información recibida, de forma automática, con la Administración correspondiente del país o jurisdicción de residencia fiscal de las personas que ostenten la titularidad o el control de la cuenta financiera.



3. Genero eragina

3.1. Genero egokitasuna

Nahiz eta proiektuaren hartzaile nagusiak finantza-kontu jakin batzuen titulartasunari buruzko informazioa emateko betebeharra duten finantza-erakundeak izan, dudarik ez dago, zeharka bada ere, finantza-kontu horien titularrak diren pertsona fisikoei ere eragiten diola.

Finantza-erakundeak agente ekonomiko benetan garrantzitsuak dira sare sozio-ekonomikoan, erabaki garrantzitsuak hartzen dituztelako inbertsio, enplegu sorrera, eta abarri dagokionez.... Hau da, eragina dute pertsonen harreman sozialekin zuzenean lotuta dauden gaietan, haien bizi baldintzetan eta baliabideen eskuragarritasunean (lan baldintzak, soldatak, ingurune fisikoa...).

3. Impacto de género

3.1. Pertinencia de género

Si bien el grupo destinatario principal del proyecto son las entidades financieras obligadas a suministrar la información sobre la titularidad de determinadas cuentas financieras, no cabe duda, aunque de modo indirecto, que también afecta a las personas físicas titulares de dichas cuentas.

Las entidades financieras son agentes económicos que tienen una especial relevancia dentro del entramado social y económico, ya que las mismas son importantes centros de decisión respecto a inversiones, creación de empleo... Es decir, influyen en cuestiones directamente vinculadas a las relaciones sociales de las personas, sus condiciones de vida y acceso a los recursos (condiciones laborales, salarios, entorno físico...).



Hortaz, eta nola xedapen normatiboak eragina duen emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan, ondorioztatzen da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

3.2. Genero eraginaren balorazioa

3.2.1. Hasierako egoera

EUSTATEk egiten duen "Errenta pertsonal eta familiarra"-ren datuen arabera, 2013an Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 15.076 eurokoa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, 24.680 eurokoa (%38,9ko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %40,8koa da (8.972 euro eta 15.167 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murrizagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %25ak ez du 1.500

Por tanto, y como la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres, se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

3.2. Valoración del impacto de género

3.2.1. Situación de partida

Según los datos de la "Renta personal y familiar" que elabora el EUSTAT, en 2013 la renta media de las mujeres en Gipuzkoa fue de 15.076 euros y la de los hombres de 24.680 euros (brecha del 38,9%). En las rentas procedentes del trabajo la diferencia es del 40,8% (8.972 euros frente a 15.167, dado el menor acceso al empleo y la discriminación laboral). El 25% de las mujeres de Gipuzkoa no percibía unos ingresos superiores a 1.500 euros al año, frente a 14,1% en los hombres. Más de la



eurorik ere irabazten urtean, gizonezkoetan talde hori % 14,1ekoa den bitartean. Emakumeen erdia baino gehiago (%52,5) urtean 12.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %29,1 diren bitartean.

Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonezkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonezkoei baino. Horrela, eta EUSTATen Biztanleria Jardueraren Araberako datuen arabera (2015eko abendua), emakumeen okupazio tasa %45,4koa da Gipuzkoan, gizonezkoena %55,7koa den bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, emakumeak dira kolektibo horren %47,3 Gipuzkoan.

mitad (52,5%) de las mujeres se concentra en ingresos inferiores a 12.000 euros anuales frente al 29,1% de los hombres.

En lo referente al mercado de trabajo, a pesar de que la brecha de género en las tasas de paro se ha reducido como resultado del aumento del desempleo en los hombres, a consecuencia de la crisis económica, el paro sigue afectando más a las mujeres que a los hombres. Así, y según los datos de la Población en Relación con la Actividad de EUSTAT, en diciembre 2015, la tasa de ocupación de las mujeres en Gipuzkoa es de 45,4% frente al 55,7% de los hombres. Respecto a la población en situación de desempleo, las mujeres representan en Gipuzkoa el 47,3% de dicho colectivo.



Era berean, emakumeak dira nagusi diru-sarrerak bermatzeko errentan titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2016ko otsaileko datuen arabera, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (SBE) jasotzen duten pertsonen %56,8 emakumeak dira Gipuzkoan.

Nabarmentzeko modukoa da pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, "Gipuzkoako pobrezia eta bazterkeriaren inkesta, 2014" argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekaritatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan. Horrela, pobrezia iraunkorraren maila bereziki altua da emakumezkoak daramatzaten etxeetan bizi direnen kasuan (%12,8), gizonezkoen daramatzaten %7,8ren aldean.

Del mismo modo, las mujeres son mayoría en el colectivo de personas titulares de la renta de garantía de ingresos. Así, y según los datos de Lanbide, en febrero de 2016 el 56,8% de las personas receptoras de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) en Gipuzkoa son mujeres.

Cabe destacar, que los índices de pobreza son superiores en los hogares cuya persona principal es una mujer. Según la "Encuesta de pobreza y exclusión social de Gipuzkoa 2014" la pobreza y la precariedad se concentran cada vez más en los grupos tradicionalmente de riesgo. Así, el análisis de la incidencia de las distintas formas de pobreza en función del sexo revela en todos los casos la peor situación comparada de los hogares encabezados por mujeres. Así, la tasa de pobreza persistente es particularmente elevada entre las personas que viven en hogares encabezados por mujeres (12,8%), frente al 7,8% en hogares encabezados por hombres.



Pobrezia eta bazterketa arriskua neurtzen duen AROPE tasaren arabera (diru-sarrera apalak, eskasia material larria eta lan intentsitate apala) emakumezkoen %21,5a dago egoera horietako bat jota egoteko arriskuan, gizonezkoen %17,5aren aldean. Eta emakumezkoak buru dituzten etxeetan, bertan bizi diren %29,4k dute arrisku hori, gizonezkoak buru direnean portzentaje hori %16,6ra jaisten den bitartean.

Según la tasa AROPE de riesgo de pobreza y exclusión social (bajos ingresos, privación material severa y baja intensidad laboral) el 21,5% de las mujeres esta en situación de sufrir al menos una de esas situaciones, frente al 17,5% de los hombres. Y cuando la persona principal del hogar es una mujer, el 29,4% de los integrantes del hogar pueden estar en esa situación, mientras que si la persona principal es un hombre le porcentaje baja al 16,6%.

3.2.2. Genero eraginaren balorazioa

Hasiera batean, finantza-erakundeei finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola dutenen zerga egoitza identifikatzeko obligazioa arautzeak, badirudi, ez duela inongo eragin zuzenik emakumezkoen eta gizonezkoen egoeran gain.

3.2.2 Valoración del impacto de género

En un principio, regular para las entidades financieras la obligación de identificar la residencia fiscal de las personas que ostenten la titularidad o el control de cuentas financieras, no parece que tenga ningún efecto directo en la situación de mujeres y hombres.



Beraz, esan dezakegu proiektuak ez dakarrela aldaketa substantiborik genero desberdintasunaren inguruan gaur dagoen egoera aldarazteko.

Halere, kontuan izanda bere xedea iruzurraren aurka borrokan jardutea dela, proposatutako aldaketak eraginkorragoak egingo ditu jarduketa tributarioak, eta horiek, azkenean, positiboki eragingo dute zerga sistemaren funtzionamendu orokorrean.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu egin dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak. Alde batetik, Ekonomi Ituanren 3. artikulua ezarritako harmonizazio arauak direla-eta,

Por tanto, podemos considerar que el proyecto no incorpora cambios sustantivos que puedan contribuir a una modificación de la situación actual respecto de las desigualdades de género.

Si bien, y teniendo en cuenta que el objetivo de dicha medida es luchar contra el fraude fiscal, la modificación propuesta provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado ni aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concierto Económico, deben



Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak. Eta bestalde, ordenamendu juridikoko beste arau batzuetan espresuki zehaztuta daudelako errespetatu behar direnak.

respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria, ni aquellos otros que deban respetarse por estar expresamente definidos en otras normas del ordenamiento jurídico.

Donostia, 2016ko irailaren 16a

San Sebastián, a 16 de septiembre
de 2016

Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal
AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS